



ORDEZKAPEN BIDEZKO ERNALKETA – GESTACIÓN POR SUSTITUCIÓN
EZTABAIDARAKO EHBILDUREN IRIZPIDEAK

Elisabeth Roudinesco: a pesar de las modificaciones, la familia se pretende conservar como único valor seguro al cual nadie quiere renunciar

AURKIBIDEA

1.- Atarikoak	3
2.- Guraso izatearen desioa	4
3.- Izendapena definituz	5
4.-Ikuspegi legalari dagokionean	6
5.- Eztabaidarako gako nagusiak	8
6.- Akordioak	12
Eranskina: Beste herrialdetako esperientziak errebisatuz	15

1.- Atarikoak

Jaiotzaren ekologiak, ernalketa eta jaiotza prozesuak patologizatu beharrean, ekosistemaren prozesu naturaletako parte gisa hartzen ditu. Beraz garrantzitsua ez da non ematen den ernalketa eta jaiotza, baizik eta nola ematen den; eta nola ematen den horretan, ekitate eta oreka harremanak, alde guztien arteko erabaki askeak babesten ote diren: ernaldia izan denarena, ernalketa burutu duenarena, eta jakina, jaiotzen den umearena.

Euskal Herria Bildun bi urte pasa eman ditugu eztabaidari eusten, ikuspegi intersektional batetik, eta eztabaida honetan talka egiten duten erpin desberdinak kontuan hartuz: interesak zein eskubideak, herrialdeen arteko desoreka, klase borroka, berdintasuna, feminismoa, heteroarautik irteten direnen ernalketarako alternatibak, sistema pribatua publikoaren aurrean, borondatea eta beharra, eskubidea edo nahia, etab.

Era berean, eta badakigun arren Euskal Herrian ez dugula gaiaren gainean legeztatze eskumenik, herrialde desberdinetako errealitateak errebisatu ditugu, ez baita eredu bera aplikatzen ari Ukrainan edo Erresuma Batuetan, Mexikon edo Kanadan, Indian edo Grezian, edo Kalifornian zein Illinoisen.

Eztabaidaren beharra gure ingurutik sortu zen, guraso izan nahi zuen bikote homosexual baten aldetik. Eztabaida pil-pilean egon ez arren, eskaera zehatza egin ziguten EH Bildukoei: ordezkapen bidezko ernalketa legeztatzearen aldeko jarrera duzue?

Eta eztabaidari ekin genion, ahalik eta ikuspegi desberdin gehien eskuratzeko asmoz. Informazioa iturri anitzetatik hartu ditugu: egile feministek idatzitako artikuluak eta baita lan akademikoak, gure artean eztabaidatu dugu eta baita abokatuen edo beste adituen iritziak jaso ditugu,... Azken finean, jakitun ginen ordezkapen bidezko ernalketa gure artean geneukala, eta baztertzeko jarrera bakarra mantendu baino, inplikaturakoen eskubide, borondate eta beharrak uztartzeko ariketari eutsi behar geniola.

Ez da erraza izan, oso jarrera kontrajarrietatik abiatu baikin, baina eraikuntza prozesuaren emaitza oso aberasgarria izan da, bestearen lekuan jartzeko ariketari eutsi behar izan baitiogu maiz, norabide bakarreko jarreretatik aldenduz. Jakitun gara hemen

ageri direnak zehaztu, garatu edota errebatitu ahalko direla, ahots desberdinen artean landutako prozesuaren emaitza baita, prozesu kolektibo baten ondorioa. Eta eragile politikoa garen neurrian, gure inguruan jadanik presente dagoen errealitate baten aurreko jarrera, eta eztabaida publikora zabaltzen ari den gaiaren inguruko gure proposamena, landu behar genuela argi izan baitugu.

2.- Guraso izatearen desioa

Eskubideak ez bezala, desioak eraikuntza sozialak dira. Ama edo aita izatea desiratzen dugunean, ez gara eskubideen joko-zelaiari kokatzen ari, desio, nahi, borondateen esparruan kokatzen baikara; eta hauek, eraikuntza sozialak dira.

Ernalketa sistemen esparruan ematen ari diren aldaketa handiak (teknologia berriak), emakumeek jendartean ukatuak zitzaizkien espazioak okupatzeak, eta familia instituzio posmodernoak, amatasun eta aitatasunarekin lotutako desira eta esperientziekin batera, subjektibitate femeninoa eta maskulinoa eraldatzen ari dira.

Gaur egun gurasotasuna eta genero identitatea eztabaidagai izaten ari da: tradizionalki indarra izan duten idealak, talkan sartzen baitira gaur egungo praktika berrieekin, kultura jakin bati esleitutako baloreekin, eta izate femenino/maskulinoaren eraikuntzarekin. Horrela, indarrean dagoen eraikuntza sozio-kulturalak markatzen digu, balore sinbolikoen baitan zer den garrantzitsua, eta jendartearen parte integratua izateko eta eraikitako paktu sozialen arabera eman beharreko urratsak zeintzuk behar diren izan. Modu honetara, eta kultura bakoitzak ezartzen dituen balio zein baloreen arabera, “umea izateko beharra”k topo egiten du norbere historia pertsonalaren aspektu edipikoekin, prozesu identifikatorioek topo egiten dute gurasoen figurekin, eta genero identifikazioek helburu nartzisistekin egiten dute topo maiz.

Emakume batzuentzat (errenta ertain-altukoak, formatuak, enpleguak, hiriguneetakoak, aniztasun funtzionalik gabekoak, heterosexualak eta zuriak gehienak) beraien gorputza kontrolatzeko eskubidea eta aukera gauzatu ahal izan denetik, praktika eta espazio berriak sortu dira ernalketari lotuta, baina arazo berriak ere sortzen ari dira. Eta sortzen ari diren gatazka berri hauen konplexutasuna kontuan hartuta, eztabaida ezin dugu murriztu aukera biologiko edo harreman-eredu soiletara, eta eztabaida ere ezin dugu mugatu desio eta nahien esparru mugatura.

Politizazio zientifiko zein kulturalaren gakoa, gorputzen gaineko boterean gauzatzen da, eta horregatik, emakume ernaltzailearen gaineko kontrola eta guraso izateko aukera berrien kontrola, daude eztabaida honen muinean.

Berriro diogu, gurasotasun praktikak eraikuntza sozio-kulturalak dira. Eta eraikuntza sozial honetan kokatzen dira guraso izateko prozesuan parte hartzen duten alde desberdinak. Gizon zein emakumeak, ernaldu ahal izateko eskuratzen dituen aukera desberdinen arabera, eraikitzen du bere identitate propioa jendarte eredu konkretu horren baitan, eta balore sinboliko konkretuei erantzunez egingo du gainera.

Familia eraikuntza soziala den neurrian, emakume zein gizon horrek familia eredu bat eraikiko duen neurrian, izango da jendarte horren parte aktibo eta efektiboa. Guraso izatea ezin da baloratu prozesu biologiko huts bezala, prozesu sozial eta kultural gisa baizik, non praktikak, signifikatuak eta bizipenak garaiko talde sozial zein kulturelek eraikitako diskurtsoengatik izango diren baldintzatuak.

Horregatik guraso izateko nahia, eta nahi hori eskuratzeko erabiliko den bitartekoa, orden soziokulturean kokatu behar dugu, sistema sozialaren, politikoaren eta ideologikoaren parte diren aita/ama izatearen signifikatu, errepresentazio, eredu eta imajinei esleituak.

3.- Izendapena definituz

Izendapenaren bidez, izendatzen dugun hari posizio eta rol jakin bat eman eta aitortzen diogu; izendatzen dugun hura espazio sozial jakin batean kokatzen dugu, berekiko jarrera, praktika, sentimendu, eskubide eta behar batzuk eraikiz. Izendapenarekin identitateak eraikiko ditugu, eta harekiko jarrerak baldintzatuko.

Izendapenek karga ideologiko argia dute beti, eta izendatzeko garaian karga ideologikoa erantsi edo kentzeko izan ditzakegun interesen arabera, termino bat edo beste erabiliko dugu.

Aztergai dugun gaiarekin ere, izendapen ugari aurki dezakegu, eman edo kendu nahi izan zaion karga ideologikoaren arabera: *alokairuzko ama*, *alokairuzko umetokia*, *amatasun/aitatasun subrogatua*, *ernalketa subrogatua*, *ernalketa ordezkatua*, *ordezko ama*, besteren artean. Inon aurkituko ez duguna ordea, umeari erreferentzia egiten dion izendapenik izango da, prozesuaren helmuga umea bada ere.

Alokairu terminoa tartean egoteak, prozesuari merkantilizazio kutsua eransten dio, eta sortuko denari produktu izaera. Produktuak alokatzen dira, eta alokatzeagatik ordaindu egiten da. Beraz *alokairuzko umetokia* aipatzen denean, tartean truke merkantila dagoela agerian uzten da.

Ama terminoak, eraikitako familia ereduaren baitako funtzio bat esleitzen dio emakumeari, prozesu honetan ez duen funtzioa gainera, umetokia jarri arren ez baitu “ama” izendapenari esleitzen zaizkion funtzio sinboliko zein sozialak izango.

Ernalketa erabiltzen denean, obulua, esperma eta umetokia nork jarri duen ez da aipatu ere egiten, prozesuari egiten zaio erreferentzia, ez ordea prozesuan parte hartu duten aspektuei.

Subrogazioa izendapen aseptikoa da, eta jende askok ez du ulertzen zer den sikiera. Hiztegiataraz joz gero, subrogazioa *zerbait edo norbait ordezkatzeari* dela aurkituko dugu.

Ernalketa subrogatua terminoarekin, prozesua despertsonalizatu egin da, aseptikoa bilakatzen; ez da truke ekonomikorik, hirugarren pertsonarik bisibilizatzen.

Guk *ordezkapen bidezko ernalketa (gestación por sustitución)* terminoa lehenetsi dugu, ernalketa prozesu bati buruz ari baikara, eta berau gauzatzeko ordezkapen prozesu bat ematen delako.

4.-Ikuspegi legalari dagokionean

Estatu Espainoleko 14/2006 Legeak, lagundutako ernalketa teknikak jasotzen dituelarik, 10. artikuluan ordezkapen bidezko ernalketarako kontratua baliogabetzat hartzen du, ama biologikoari eutsiz.

Ama edo aita izan nahi eta ezintasun biologikoak dituenean pertsonak, sistema ugari du gaur egun haurra eduki ahal izateko: adopzio sistematik hasi eta ernalketa sistema alternatiboetara arte. Baina hauek ez daude eskuragai kasu guztietarako, eta bestelako bide alternatiboak irekitzen aritu dira azken hamarkadan, norbere ordezkapen pertsona batek ernaltzen dueneko kasuen moduan.

Adopzio ereduak, askotan luzea, garestia, mingarria eta ez beti segurua izan ohi da, Estatuaren arteko akordioak alda daitezkeelako prozesua hasita egon arren adibidez. Familia eta pertsona eredu bati erantzuten diotenei dago irekia (bikote heterosexualaz

ari gara), eta eredu honetatik kanpo geratzen direnentzat ateak itxita mantentzen dira maiz (bikote lesbiana, homosexual, transexual edo pertsona bakarrei). Eta gainera asko dira haien ADNa umean txertatua izatea nahi duten pertsonak, horretarako lagundutako ernalketara jotzen delarik.

Lagundutako ernalketak ere bere arazoak sortzen ditu, obulu zein esperma donaziotik hasi, umetokien intseminazio artifizialera pasata, aukera hauetarako sarbide publiko unibertsala ez baita bermatzen indarrean daukagun sisteman,

Bide honetan, asko aurreratu da umea biologikoki eduki ezin edo eduki nahi ez, eta beste alternatibetara jotzeko aukeren esparrua; aurrerapausoak, medikuntzaren eta legearen esparrukoak izan dira.

Nerea Olea Lequericaren Gradu Amaierako Lanean jasota datorrenez¹, Kode Zibileko Bosgarren Tituluko Lehen Kapituluak seme-alabatasunaren inguruko nondik norakoak erregulatzen ditu, baina ez du kontzeptua bera definitzen. Legezko definizio baten faltan, doktrinak emandako definizio ezberdinetatik abiatuz, horrela azal daiteke seme-alabatasunaren kontzeptua: *pertsona baten eta bere gurasoen artean existitzen den lotura, biak lotzen dituen egoera juridikoa*.

Lotura hau biologikoa den egitate batetik sortzen da, hau da, pertsona batek beste bat sortzetik, baina egitate horrek suposatzen duenaren ondorioz, legegileak hau erregulatzeko beharra dauka, juridikotasuna aitortuz hasiera batean biologikoa baino ez den loturari. Horren ondorioz, bi dimentsio bereizten dira fenomeno juridiko berean:

- Alde batetik, biologikoa; eta, bestetik,
- juridikoa, azken hau izanik hedapen handiena duena, seme-alabatasun juridikotik sortzen baitira gai honetan horrenbesteko garrantzia duten bi terminoak: aitatasuna eta amatasuna eta hauekin lotutako eskubide eta obligazioak.

Lagundutako Giza Ugalketa Tekniken erabileraren ondorioz ere banatu egin dira aipatutako bi dimentsioak, izan ere, material genetikoaren emailea, eta beraz, guraso

1 Olea Lequerica, Nerea (2015): Amatasun Sobrogatua Espainiako Zuzenbidean, Auzitegi Gorenaren 835/2013 epaiaren harira, EHU (argitaratu gabe).

biologikoa, ez da sortutako haurren guraso bezala agertuko erregistro zibilean. Haurra izan duena agertuko da bai erregistroan bai errealitatean haur horren guraso bezala, horrela adierazten delarik teknika hauen erabilera erregulatzeaz arduratzen den legeko 7. artikuluan.

Gauza bera gertatzen da ordezkapen bidezko ernalketaren kasuan: juridikoki haurren gurasoak ez dira izango haurra sortzen dutenak; haurren gurasoak teknika kontratatzen dutenak izango dira, nahiz eta ez izan inolako lotura biologikorik harekin.

5.- Eztabaidarako gako nagusiak

Hainbat kezka eta duda sortu dira eztabaida eman dugun bitartean, batez ere gehien ezagutzen diren esperientzietatik abiatuta, eta bertan truke ekonomikoa dagoen neurrian.

Eztabaidak gako eta erpin ugari ditu beraz, tartean identifikatu ditugularik honakoak:

- **Guraso izatea eskubidea ote den edo desioa den**

Guraso izatearen gaineko erabakia hartzea bada eskubide bat, norberak umea eduki edo ez eduki erabakitzekeo eskubidea bermatua izan behar du; baina guraso izateko nahia, desioa da, ez eskubidea.

- **Norberaren karga genetikoa duen haurra izateko desioari erantzuten ote dion**

Hemen kasuistika anitza ageri da: bikote heterosexualen artean bereziki, emakumeak ezin badu ernaldu, gizonaren espermarekin ernaltzen da obulu bat edo zuzenean umetokia jarriko duen emakumea.

Badira ere ernalketa prozesutik pasa nahi ez duten emakumeak, horretarako beste emakume batengana jotzen dutelarik ordezkapen bidezko ernalketarekin.

Nolanahi ere, umetokian ordezkapen bidezko ernalketak ez du beti karga genetikoa ekartzen, emakume baten umetokian klinika batean eskuratutako obulu ernaldu bat sartu baitaiteke, inolako karga genetikorik izango ez duena ez umetokia jartzen duen emakumearekiko, ez eta prozesua abiatzea erabaki duen partearekiko.

- **Hetero-arautik irteten diren familia erduei ateak irekitzen ote dizkien**

Hetero-arautik irteten diren familiek badute adopzioarako aukera, baina ez herrialde guztietan eta umeen adin maila guztietarako; gainera, adopzio sistema asko luzatzen da maiz, eta ez da beti segurua, estatuen arteko itunak apurtu daitezkeelako prozesua abiatua egon arren, adibidez.

Emakume lesbiana bikote batek, edo emakume bakar batek, obulu ernalduen sistemara jo dezake; gizona bikote edo gizon bakarrek ordea, ezin diote bide horri eutsi.

Ernalketa lagundutako atak itxita dituztenei, edota adopzioarako baldintzak mugatzen zaizkienei, beste aukera bat irekitzen die ordezkapen bidezko ernalketa sistemak beraz.

- **Batez ere homosexualen interesei erantzuten ote dien**

Egia bada ere kanpaina mediatiko gogorra dagoela sistema honekiko, eta publikoki ateratzen ari direnak batez ere bikote homosexual edo gizon bakarrak direla, Kanadan egindako ikerketa baten arabera², bide honi eusten diotenen % 80, pertsona zein bikote heterosexualak dira.

- **Emakumeen gorputzaren erabilera egiten ote den**

Emakumeen umetokiak ez dira bete beharreko poltsa hutsak; emakumeak ernaltzeko makina biologikoak ez diren moduan. Beraz, umea izan nahi eta erabakia gauzatzeko unean kontratua, beraz aldean arteko arau betearazleak, eta beraz nola ez, merkatu-truke harremanak daudenean, emakumeak eta haien umetokiak merkatu-trukerako gune bilakatzeko eta umearen eskubideak alboratuak geratzeko arriskua dago eta, beraz, horrelako egoeratan, haurdun dagoen emakumearen eta umearen eskubideak bermatzeko baldintza zorrotzak ezarri beharko dira.

Bestelakorik da, bi aldean arteko akordio libre eta ekitatiboa badago, inolako kontratu eta are gutxiago truke ekonomiko-merkantilik gabe; eta umetokiaren “lagapena” borondatez, altruismo hutsagatik egingo bada.

- **Emakumeen gorputzaren merkaturatze bat ote den**

Emakumea umetokiaren jabe izan arren, bere gorputza *erabilia izateko* bitarteko huts bilakatu daiteke; bere umetokia kontratu bidez alokatu daitekeen espazio bilakatzen da, jadanik globalizatua dagoen merkatu honetan.

2 Shir Dar et al. (2015). Assisted reproduction involving gestational surrogacy: an analysis of the medical, psychosocial and legal issues: experience from a large surrogacy program. *Human Reproduction*, 30 (2), 345–352.

Hedatuena dagoen sistemaren arabera, eskaria egiten du(t)en pertsonak mediku zentro batekin eta umetokia eskaintzen duen emakumearekin kontratua egiten dute, emakumea ernaldua izan dadin eta umea jaiotzerakoan, eskaria egin du(t)en pertsonari emana izan dadin. Kontratua sinatutakoan, emakumeak, kasu gehienetan, ezin du atzera egin hartutako erabakian, prozesuak iraun bitartean ezingo du erabakirik hartu.

- **Emakumeen umetokiak alokatu ote daitezkeen**

Emakumeen umetokiak alokatzen ari dira dagoeneko, modu irregularrean edo alegalean, eta etekin ekonomiko gehienak emakumearen eskuetatik kanpo geratuz (bitartekaritza enpresa, ospitale eta abarretan geratzen baita kopuru handiena).

Globalizatutako umetokien merkatu honetan, Indiak burutu izan du kontratu gehien, urtean 25.000 ume jaiotzen zirelarik sistema honen bidez; emakume txirotuenek jartzen dute haien umetokia, familia aurrera ateratzeko diru-sarrerara bilakatzen baita (20000-30000 dolar ordaintzen da jaiotako ume bakoitzagatik, emakumeak ordea 3000 inguru jasotzen ditu). EEBBetan berriz, antzeko egoera dugu, diru-sarrerak izateko aukera gisa ematen baita (120000 dolarretik gora ordaintzen da, jaiotako ume bakoitzagatik). Baina ondoren ikusiko dugun moduan, bestelako errealitateak ere badaude, herrialde zein estatuen arabera.

- **Emakumeek libreki erabaki ote dezaketen ordezkapen bidez ernaltzea**

Kasu askotan, emakumeek diru-sarrerak lortzeko bide moduan hautatzen dute. Emakumeak ez al du libreki erabakitzen ordezkapen bidez ernaltzea etekin ekonomikoak eskuratzeko? Ez al diogu gaitasun hori aitortzen? Askotan mendebaldeko emakumeok, beste herrialdeetako emakume txirotuen izenean hitz egiteko joera dugu. Amatasuna bera nola ulertzen den oso ezberdina izaten da herrialde ezberdinetan. Lehen aipatu dugunez, hain zuzen, eraikuntza soziala delako. Horregatik, beharrezkoa dugu ezagutzea beraiek nola ikusten duten. Adibidez, Mexikoko emakumeek diotena baliagarria izan daiteke ulertzeko emakume hauek ez direla biktima hutsak, erabakitze ahalmena (txikia izan arren) izan badutela (<http://elpaissemanal.elpais.com/documentos/maternidad-subrogada-en-mexico/>).

- **Prostituzioarekin antzekotasunik ote duen**

Emakumeen gorputzaren erabilera den neurrian, klase desoreka, eskaintza-eskaria logika, ordainketa, eta gorputzen erabilera ematen diren neurrian, bai. Baita

feminismoan nagusia omen den ordezkapen bidezko ernalketaren kontrako jarrera lotuta dago prostituzioaren kontrako jarrerei, bietan emakumeen gorputza erabiltzen dela ulertzen baitute. Prostituzioaren kasuan ordea, bezeroarekin joan ala ez eta harekin zein praktika burutuko duen, azken erabakia emakumearena da; ordezkapen bidezko ernalketan berriz, behin kontratua sinatutakoan emakumeak, kasu gehienetan, ez du prozesuaren gaineko kontrolirik izaten.

- **Klase desoreka ote dagoen, ordaintzeko duenak eta ordaindua izateko beharra duenaren artean**

Eskari eta eskaintza sisteman kokatzen dira ezagutzen diren prozesu gehienak; ordaintzeko duenak, ordaindua izateko beharra duenari ordaintze dio. Beraz, egun araututa dagoen moduan, ez da harreman horizontal batetik abiatutako hartu-emanak sortzen. Bestelako eran arau daiteke?

- **Herrialdeen arteko desoreka ekonomikoa ote dagoen, Iparra vs. Hegoa**

Ekonomikoki gehien garatutako herrialdeetatik dator eskaria, bertan kokatzen dira enpresa bitartekariak, eta eskaintza, ekonomikoki gutxien garatuak dauden herrialdeetatik abiatzen da. Neurri honetan, jakina badagoela lurraldeen arteko desoreka, ezagutzen ditugun sistema gehienetan.

- **Umetokiaren merkaturatze transnazionala ote den**

Prozesuan, 4 herrialdek hartu dezakete parte: eskaria egin den herrialdea, obulu ernaldua eskuratzen deneko bigarren herrialdea, obulua espermarekin ernalduko den hirugarren lurraldea, umetokiaren jabe den emakumea dagoen laugarren herrialdea. Eta bakoitza kontinente batean egon daiteke. Enpresa bitartekariak berriz, ordezkariak dituzte herrialde desberdinetan kokatuak dauden enpresa farmakologiko eta ospitaletan, bai eta emakumeak izaten dituzten espazioetan ere. Beraz merkaturatze transnazionala ematen ari da ezagutzen ditugun kasu gehienetan.

- **Emakumearen azken eskubideak babesten ote diren**

Ezagutzen ditugun prozesu gehienetan, behin kontratua sinatutakoan, emakumeak ezingo du atzera egin; herrialde askotan kontrolpean izango dute prozesuak iraun bitartean; erditzea ez du baginala izango zesarea bidez baizik (umea “ondo” atera

dadin); umea arazoekin badator ezingo du erabaki abortatzen duen hala ez, kontratuz markatzen baita noiz eta nola erdituko den; prozesuan konplikaziorik sortuz gero ez du kalte ordainik izango, are gutxiago prozesuaren ondoren konplikazioak sortuz gero.

- **Interes farmakologiko eta enpresarialak ote dauden tartean**

Obuluen sorreran eta tratamenduan, espermaren tratamenduan, obuluen ernalketan, umetokien inplantazioan, sistema mediku eta farmakologikoak parte hartzen du eta bere interesak ditu, adibidez: emakume bati obuluak sortzeko ematen dizkioten medikamentuek obulu bat baino gehiago sortzea ekartzen du, emakumeari obulu bakarragatik ordainduko badiote ere, eta ospitaleak “soberako” 2-3 obulu horiek ondoren salduko baditu ere. Obuluen kasuan gainera emakumearen osasunean prozesuak duen eragina handia izan ohi da. Eta kasu hauetan guztietan, ordainketa tartean dago.

Ordezkapen bidezko ernalketan ere, interes mediku eta farmakologikoak handiak izan daitezke, eta sortzen ari diren enpresa bitartekariak, horren adierazle dira.

- **Obuluak eta gainerako ernaltze sistemetan salmenta egiten bada ere eztabaidagai ez ote den izaten ari**

Hala da, obuluen inguruko salmenta ematen ari da, emakumeak obulu sortzaile bilakatuz, eta irabazien portzentaje nagusia bitartekari zein ospitalek eramanez. Emakumearen gorputzean prozesu hauek duten eragina ere ez dago eztabaida publikoan.

- **Adopzio sistema dagoenez, guraso izan nahi dutenek bide hori erabil dezakete**

Indarrean dagoen adopzio sistemak ez die erantzuten familia eredu berriei, heteroarautik irteten diren errealitateei. Horretaz gain, oso luzea da, gainerako gurasoei exijitzen ez zaizkien baldintzak ezartzen dira (azterketa psikosozialetatik hasita), nazioarteko adopzioak ez dira beti seguruak izaten eta diru asko ezarri behar izaten da prozesuan zehar, besteren artean. Eta adopzioetan ere dirutza izaten da tartean, nahiz eta kasu honetan merkantilizazioaz ez den hitz egiten ari. Beraz egungo adopzio sistema ez da guraso izan nahi duen ororentzako bidea.

- **Sortuko diren umeen eskubideak babesten ote diren**

Ez da honen inguruko ezer jasotzen ezagutzen diren prozesu gehienetan. Ume bat beharrean bi jaiotzen badira, bigarrenarekin zer gertatzen den ez da zehazten; umea osasun arazoren batekin sortuz gero, ez da jasotzen zer gertatuko den berekin (kontratuetan jasotzen dena baita, umea osasuntsu eta “kondizio bikainetan” jasoko dutela kontratua ordaintzen dutenek); prozesua hasi eta bidean bikotea banatzen bada, ez da zehazten zer gertatuko den datorren ume horrekin; nola eta nondik sortu den jakiteko eskubidea ere ez zaio kasu guztietan bermatzen umeari (Umeen Eskubideen Konbentzioa, 7-8 artikulua).

6.- Akordioak

Aurreko atalean azaldutako gakoengatik inguruko irakurketa ezberdinak egin ditzakegu, batzuek emakumeen gorputza ez erabiltzea gauza guztien gainetik jar dezakete; beste batzuek, errealitateari erantzun beharra azpimarratuko dute; edota erabat desregulatua egoteagatik gehiegikeriak sor ditzakeen sistema erregulatzeko beharra aipatzen da. Guztiok, gaia korapilatsua dela eta askotariko erpinak dituela onartzen dugu.

Akordioei eusteko, bi eskubide eta desio bat uztartzeko saiakera egin dugu: emakumearen eskubidea, sortuko den umearen eskubidea, eta guraso izan nahi dutenaren desioa. Euskal Herria Bilduren jarrera eraikitzeke, hiru hauek uztarketa eman dugu, jakitun, eskubideak ezin direla desioekin parekatu, eta desioak eraikuntza sozialak diren moduan, eskubideak bermatu beharreko irizpideak direla.

Ordezkapen bidezko ernalketa, egunero burutzen ari den errealitate bat da (800dik gora kasu urtean estatu espainolean), gainean daukaguna.

- Erabaki dezakegu ez arautzea, jakitun egiten jarraituko dela, kontrolik gabeko baldintzarik gabe eta maiz asko emakumearen eta sortuko den umearen oinarritzko eskubideak babestu gabe, enpresa bitartekariak hutsune legal honetaz elikatzen jarraitzen diren bitartean.
- Edo erabaki dezakegu arautzea, emakumeen eskubideak indarrean dauden merkatuen zein interes ekonomikoen gainetik babestuz, eta beraz geuk ezarri joko arauak.

Bigarren honi eutsi diogu, alegia, arautu beharra dago ondoren proposatzen ditugun irizpideen arabera:

- Ordezkapen bidezko ernalketa **ez da ez irabazi- ez merkataritza-jarduerarik izango**, alegia, tartean ez da erretribuzio ekonomikorik izango; bai ordea kalte ordainak zein gastu medikuetarako balizko ordainketak. Haurdunaldiगतिक lan egunak galduko baditu, hauek ere konpentsatuko zaizkio. Kalte ordainek, gastu medikuek zein konpentsazioek ordea, gehienezko muga izango dute eta justifikatuak izan beharko dira kasu guztietan.
- Ordezkapen bidezko ernalketaren erregulazioak **honako debekuak izango ditu**: Haurdunari ordainketarik egitea (justifikatutako gastuez gain), bitartekari lanak egin edo publizitatea, haurdun geratuko den emakumeak 18 urtetik behera izatea.
- Ordezkapen bidezko ernalketari eusteko, **inplikaturako bi parteak herri zein estatu berdinean bizi beharko dira**. Prozesua beraz, bi parteak bizi diren herri zein estatu barruan bakarrik eman ahalko da.
- **Umetokiaren jabe den emakumearen eskubidea eta osasuna lehenetsi beharko da**, prozesuarekin atzera egiteko aukera edo nola erditu nahi den erabakitzeke gaitasuna barne.
- **Jaiotzen den umearen eskubideak babestu beharko dira hasiera baretik**, identitaterako eskubidea, segurtasun eta osasunerako eskubidea, etab.
- **Ordezkapen bidezko ernalketa, bide soilik publikoetatik egingo da**, osasun sistema publikoaren bidez beraz. Osasun sistema publikoak izan beharko ditu ernatzaile posibleen eta ernalketa sistema honen eskatzaileen datu baseak, eta berak kudeatuko ditu.
- Ordezkapen bidezko ernalketa erakunde publikoek egin ahal izateko, **beharrezkoa da eztabaida sozial zabalarri eustea**, eta gizarte eragileen parte hartzea bermatu beharko da (talde feministak, LGTBI mugimendua, GKEak, legelariak, etab.).
- Ordezkapen bidezko ernalketa, guraso izateko bide bat da, baina ez bakarra. Horregatik, bera arautzearekin batera planteatzen dugu: **Egun indarrean dagoen adopzio sistemaren errebisioa**, eguneratzea eta demokratizatzea eman beharra dago, bereziki Nazioarteko Adopzioen abenduak 28ko 54/2007 legea,

eta Hautzaroa eta Nerabezaroa babesteko sistemaren uztailak 28ko 26/2015 legea.

- **Egun indarrean dagoen obulu, esperma eta enbrioien kudeaketa pribatua errebisatu behar da**, sistema publiko eta doako soilaren bidez egiteko aukerak irekitzeko.

Erregistro arazoak sortuak dauden kasuetan, erregistratzeko aukera izango da gure lurraldeko baldintza bertsuetan egin diren lurraldeetatik etorritakoekin.

Eranskina: Beste herrialdetako esperientziak errebisatuz

- **Mexiko:** estatu mailako araurik ez zegoenez, Tabascok kode zibila egokitu zuen, klinika pribatuen bidez gauzatzen zen prozesua legeztatzeko. Munduko bazter askotatik bertaratzen zen jendea sistema honi eusteko, batez ere beste lurralde batzuekin alderatuta, askoz merkeagoa zelako Mexikon egitea, 70 mila euro inguru.

Klinika hauek hautatzen zuten umetokia jarriko zuen emakumea, ezarriko ote zitzaion ernaldutako obulua ala intseminazio artifiziala egingo ote zitzaion, eta etxe berezi batzuetan kontrolpean izaten zituzten emakumeak, prozesua amaitu arte. Ez zen arautzen arazoan aurrean zer egin (emakumearen osasun arazoak, umea osasuntsu ez jaioz gero zer egin, ume bat baino gehiago jaioz gero zer egin, etab).

2015ean araudia aldatu zen, eta gaur egun bide honi eusteko modu bakarra, Mexikarra, bikote heterosexuala, antzutasun txosten klinikoa eskuratua izanez egin daiteke. Kudeaketa osoa klinika pribatuetan eta ordainsarien truke egiten jarraitzen da.

- **Kanada:** arautua dago: 18 urtetik gora egin behar da; ordainsariak eta publizitatea debekatuak daude; esperma, obulu eta enbrioak saltzea debekatzen da; parteetako batek, umetokia jartzen duen emakumea, Kanadarra izan behar da derrigor, ez ordea beste parteak. Eta kasu guztietan, altruismoa izango da prozesua ekiteko arrazoi bakarra.

Baldintza hauek apurtuz gero, 10 urtera arteko espetxe zigorra eta 500 mila dolar kanadiar arteko isunak ordaindu daitezke.

Kontratua umetokia jartzen duen emakumea eta umea izan nahi duen partearen artean egiten da; mediku gastu justifikatuak ordaindu ahalko dira. Sistemaren kudeaketa, osasun publikoaren bidez egiten da.

- **Portugal**

2016an onartu zuen Ordezkapen bidezko haurdunaldiaren Legea, umetokia ez izateagatik edota umetokiarekin arazoak izateagatik haurdun gelditu ezin duten emakumeei zuzendua.

Legeak dioenez, haien umetokia uzten duten emakumeek ezingo dute dirurik jaso, eta ezingo da inolako harreman ekonomikorik mantendu umetokia uzten duen emakumea eta umea jasoko duen bikote heterosexualaren artean.

Kontratua pribatua, umetokia uzten duen emakumea eta bikote heterosexualaren artean egiten da, bertan jasotzen direlarik bi parteen betebeharrak eta eskubideak, eta sor litezkeen ezustekoen aurreko konponbideak.

Lege honen onarpenarekin batera, lagundutako ernalketa teknikak eskuratzeko aukera zabaltzea bozkara eraman zen, emakume bakarrak edo sexu bereko bikoteek ere aukera honetarako sarbidea eduki dezaten.

- **Erresuma Batua**

Legeak, subrogazio bidezko haurdunaldi komertziala debekatzen du; publizitatea egitea eta bitartekaritza merkantila egitea ere debekatua dago. Irabazi asmorik gabeko elkarte ugari daude ordea, guraso izan nahi duen pertsona, umetokia ezarriko duen emakumearekin harremanetan laguntzen dutenak.

Subrogazioa, familia edota lagun artean bakarrik eman daiteke. Diru-trukerik ezin egon badaiteke ere, haurdunaldia dela eta sor daitezkeen hainbat gastu ordainduak izan daitezke, mediku gastuak esaterako.

Bikote heterosexual zein homosexualek jo dezakete sistema honetara, ez ordea pertsona bakarrek. Eta bikoteetako batek Erresuma Batuan bizi behar du.

Umea izan duen emakumeak 52 astetarako baja hartzeko eskubidea du.

- **India**

Tamaina ertaineko hiri guztietan subrogazioa aplikatzen zen klinikaren bat zegoen; atzerriko bikote ugari jotzen zuen bertara, merkea zelako, enpresa ugari hartu-eman komertzialak eraikiak zituelako emakumeen umetokien lagapenarekin, eta inolako araurik gabe egiten ari zelako hau.

Legea onartu berri da, eta orain, ordezkapen bidezko ernalketa komertziala fertilitate arazoak dituzten Indiako bikote heterosexualen kasuan bakarrik

baimentzen da. Debekatua dago bikote edo pertsona homosexual eta atzerritarrentzat.

- **Txina**

Ez du ez baimentzen ez eta debekatzen ere, baina merkatu beltz erraldoia dago. Debekatzeko legea eztabaidatzen aritu bazen ere, atzera egin du gobernuak, argudiatuz antzutasun tasa handiek aukera hau irekitzea ekarri behar dutela, eta debekuak merkatu beltza areagotzea lekarkeela.

Ez kongabeek eta sexu bereko bikoteek ordea, aukera hau itxita dute, ez baitira administratiboki aitortzen bikote heterosexualetatik kanpoko umeak.

- **Estatu Batuak**

Hainbat estatutan legezkoa da, Kalifornian edota Oregonen esaterako. Beste estatuetan eztabaida plano etikoan ematen ari bada ere, Kalifornian bereziki, industria bat gehiagoren moduan arautzen da gaur egun.

Kasu guztietan ordezkapen bidezko ernalketa komertziala legeztatzen da, eta pertsona zein bikote kontratatzaileen eskubideak lehenesten dira umetokiaren jabe den emakumearen aurretik.

Prozesua hasi aurretik kontratua sinatzen dute parte biek, batzuen eta besteen betebeharrak eta eskubideak zehaztu behar dituzte ezinbestean.

- **Ukraina**

Subrogazio komertziala onartua dago atzerritarrentzat ere, baldintza hauetarako beti ere: bikote heterosexual ezkondua izatea, gizonak material genetikoa jarri behar du, ama izan nahi duen emakumeak bere ezintasuna egiaztatuko duen txostena aurkeztu behar du. Prozesu honi eutsi nahi zaion une beretik, legezko prozedura bati ekiten zaio, umetokia jarriko duen emakumeak, sortuko den umearekiko harreman legala bertan behera utz dezan.